




TicketBAI

Fakturen kontsulta

2023ko otsailaren 28a

1. TicketBAI




1. TicketBAI

TicketBAI zergadunentzako zerga betebeharrak formala eta iruzur fiskalaren aurkako borrokan oinarritutako proiektua izanda ere, bere helburuen artean zergadun horiei hainbat onura ematea dauka:

1. Lehiakortasuna babestea, beren zerga betebeharrak betetzen ez dituzten zergadunek betetzen dituztenen aldean onurak izan ditzatela ekiditeko.
2. Betebeharrak gutxiagotu eta zerga betebeharraren kostuak murriztea (egoitza elektronikoa zerga ezberdinetan igorritako fakturen liburuak betez, administrazioak igorritako fakturazioari dagokionez eskatutako eskakizunak murriztuz, itzulketarako epeak murriztuz eta igorritako fakturak online egiaztatzea aukera emanez).
3. Bezeroei negozioak bere zerga betebeharrak betetzen dituela egiaztatzea aukera eskaintzea, igorritako fakturen osotasuna eta identifikazioa bermatzea.
4. Ogasunaren eta enpresari eta profesionalen arteko harremanetan digitalizazioa bultzatzea.

2. TicketBAI Ataria

Sartu Gipuzkoako Atariaren barruan TicketBAI Atarira, behar bezala identifikatu ondoren (BakQ, ziurtagiri digitala...):



EGOITZA ELEKTRONIKOA

TRAMITEAK ONLINE

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gipuzkoataria

Ogasuna eta Finantzak > TicketBAI >

Tramiteak eta zerbitzuak
IDENTIFIKAZIOAREKIN

Aufentzikatzeko zerbitzu hau herritarrei, erakunde edota beren ordezkari baimenduel zuzenduta dago.
Zerbitzu zehatzetara eta erabiltzailearen identitatearen egiaztatzen eskatzen dituzten tramiteetara sartzeko, nahitaezkoa da burua identifikatzea.

GAKO OPERATIBOA

Sartu ondoko datuak:

Identifikazio zenbakia:

Egiaztatzen pasahitza:

SARTU

ZIURTAGIRIA ETA BAKQ

Identifikazio mota jasangarriak:
* Ziurtagiri digitala
* BakQ

Non eta nola eskatu BakQ?
Onartutako ziurtagirien zerrenda ikusi
Beharrikizun teknikoak
Nola frogatzen sinadura elektronikoa?

SARTU

Zerbitzu bilatzailea


Testu bidezkoa Sail bidezkoa Gogokoak (6)

Ogasuna eta Finantzak

- Aurkeztutako altorpena zuzentzeko eskaera
- TicketBAI
 - TicketBAI Ataria**
 - FakturaBAI - Fakturen jaulkipena ZergaBidean
 - TicketBAI - Softwarearen erregistroa

2. TicketBAI Ataria

TicketBAI Ataritik sarbidea izango duzu egoitza elektronikoan TicketBAIrekin lotuta dauden aplikazioetara, eta haiei lotutako tramite guztiak egin ahal izango dituzu.



SEDE ELECTRÓNICA

TICKETBAI ATARIA

2022/11/25 14:03:05 | Online laguntza informatikoa ? eu es

TicketBAI fakturen kontsulta

SARTU

FakturaBAI

SARTU

Gailuen erregistroa

SARTU

TicketBAI fitxategien importazioa

SARTU

Jakinarazpen eta komunikazioak

SARTU

TicketBAI idazkiak

Matxura teknikoaren ohartarazpena, Gailuak baztertu edo baja eman, Idazki orokorra

SARTU

3. Jasotako fakturen kontsulta

Une honetan, honako edukia du Fakturen Kontsultak:




The screenshot shows the web application interface for 'FAKTUREN KONTSULTA'. At the top left, there is a logo for 'SEDE ELECTRÓNICA' with a hand icon pointing to a document. To the right, the main title 'FAKTUREN KONTSULTA' is displayed in large blue letters, with the logo of 'Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa' below it. A blue navigation bar contains two tabs: 'Fakturak' (with a barcode icon) and 'Inportazioa' (with a document icon). Below the navigation bar, the main heading 'FAKTUREN LABURPENA ETA KONTSULTA' is shown. Underneath this heading are two buttons: 'LABURPENA' and 'KONTSULTA'.

3. Jasotako fakturen kontsulta

Otsailean egindako hobekuntzak: BEZaren zerrenda
Martxoan aurreikusten den hobekuntza: CSV fitxategien deskarga
Hurrengo hobekuntzak: XMLen deskargak
Etorkizuneko jomuga: LiburuBAI

*Azken 90 egunetako
fakturazioaren laburpena*



3. Jasotako fakturen kontsulta

- Hiru zergadun mota:**
- Fakturazaile **handia**: 30.000 faktura baina gehiago hiruhilabete batean.
 - Fakturazaile **ertaina**: 5.000tik 30.000ra
 - Fakturazaile **txikia**: 5.000 baino gutxiago hiruhilabete batean.

Zergadunari antzeko mezua agertutzen zaio pantailan:

“Igorritako fitxategi-kopuruaren arabera, kontsulta egun bateko fakturetara mugatuko da”.

“Igorritako fitxategi-kopuruaren arabera, kontsulta hilabete bateko fakturetara mugatuko da”.

Mezurik agertzen ez bada, fakturazaile txikia da, eta gehienez hiruhileko bat kontsultatu ahal izango du.

LABURPENA

KONTSULTA

TICKETBAIN ERREGISTRATUTAKO AZKEN FAKTURAK

TICKETBAIN ERREGISTRATUTAKO AZKEN FAKTURAK ERROREEKIN

* Nahitaezko datuak

TicketBAIn erregistratutako fakturak bilatu

Gubxienez informazio-talde bat osatu behar du

Jaulkitzailearen IFZ *

Jaulkipen-data

Noiztik



Noiz arte



Eragiketaren data

Noiztik



Noiz arte



Faktura-seriea

Faktura-zenbakia

TicketBAI identifikatzailea

Faktura-mota

Fakturaren egoera

Erroreak

Guztiak

Bai

Ez

Jatorria

Guztiak

Alta

Zuzendu

Ezeztatu

Bilatu

3. Fakturen kontsulta

Gehienez 1.000 erregistro. Kontsultak 1.000 fakturako bloketan orrikatzen dira. 1.000 bloketan deskarga daiteke, hainbat kalkulu orritan, eta horiek bateratu gero.

Emaitzak 1.000 faktura baino gehiagokoak dira. [LORTU HURRENGO BLOKEA](#)

Laburpen zerrenda
 BEZarako zerrenda
 Erroredun fakturen zerrenda
 Aurkitu:

Jatorria	Erroreak	Balloga...	Fakturaren ...	Fakturaren ...	Seriea	Zenbakia	Mota	Hartzailea (k)	Zerga-...	BEZ Ku...	BEaren...	Faktura guz...	Ekintzak
----------	----------	------------	----------------	----------------	--------	----------	------	----------------	-----------	-----------	-----------	----------------	----------

Sortutako Oinarria BE/ES	Sortutako BEZa BE/ES	Sortutako Errekargua BE/ES	Aldatutako Oinarria	Aldatutako BEZa	Aldatutako Errekargua
800,00					
1000,00	100,00				

3.1. LABURPEN zerrenda:

- Faktura bakoitza lerro bakar batean irudikatuko da.
- **JATORRIA**
 - Eremuan **ALTA** jartzen badu, bidalitako jatorrizko fitxategia da.
 - **ZUZENDU Aldaketa** agertzeak esan nahi du eguneratu egin dela jatorrizko fitxategiaren informazioa, ZUZENDU Aldaketa fitxategian oinarrituta, eta azken bertsioa ageri dela. Fakturaren fitxaren Historia atalean historia osoa dago eskura.

Faktura

Xehetasuna

Historiala



Identifikazioa	Historiala	Fakturak											
Identifikazioa	Historiala	Zeinola	Erreklam	Balioztatuta/Zuzenketa	Fakturaren jatorrizko data	Fakturaren jatorrizko enpresa	Hala	Hartzailea (s)	Dokumentazioa/ Zuzenketa	BEZ Faktu	Faktura gutria	Zuzentzeak/ zuzenketak	Ekiditua
104	SI	AMBU			2024/01/25	2237.35	SI - S		13.00	13.55	66.55	0.00	SI
ZUZEN	SI				2024/01/25	2237.35	SI - S		13.00	13.55	66.55	0.00	SI

1 orri 2 orri erregistratutako enpresen gutxi 2 orri gutxi

- **ZUZENDU Konponketa** agertzeak esan nahi du fitxategia ZUZENDU Konponketa Zerbitzutik datorrela, eta hori jaso egingo zela jasotze balioztapenak gainditu ez dituelako atzera bota den fitxategi bat bidali ondoren.

3.1. LABURPEN zerrenda:

■ FAKTURAK ERROREEKIN

- “**ERROREAK**” zutabearen “**Bai**” agertuko da jasotako fitxategiek akatsak badituzte.
- Akastun faktura bat ZUZENDU Aldaketa fitxategi batek aldatzen duenean eta akatsak edukitzeari uzten dionean, JATORRIA eremua eguneratu egingo da, eta ZUZENDU Aldaketa ageriko da. “**ERROREAK**” zutabearen “**Ez**” agertuko da.

■ BALIOGABETUA/ZUZENDUA

- Faktura bat baliogabetuz gero (BALIOGABETU fitxategi baten bidez) edo zuzenduz gero (faktura zuzentzaile batekin), “**Baliogabetua**” edo “**Zuzendua**” hitza agertuko da fitxategiaren C zutabearen. Bestela, zutabea hutsik geldituko da.

3.1. LABURPEN zerrenda:

▪ DATU EKONOMIKOAK

Honako datu hauek ageri dira:

- **Zerga oinarria/Zenbatekoa:** zerga oinarri salbuetsi eta salbuetsi gabeen, subjektu pasiboa alderantzikatuta dutenen eta atxiki gabeen, fakturaren xehakapenetan jasotakoan, batura.
- **BEZaren kuotak:** fakturan jasotako BEZ kuoten batura.
- **Baliokidetasun Errekarguaren kuotak (RE):** fakturan jasotako baliokidetasun errekarguaren kuoten batura.
- **Fakturaren guztira:** fakturaren guztizko zenbatekoa.
- **Zuzendutako zenbatekoa:** oinarri eta kuota zuzenduen batura, ordezteko faktura zuzentzaileetan.
- **Jasandako atxikipena.**
- **Errore kodeak:** akatsei dagozkien kodeak adieraziko dira, komaz bereizita.

3.2. ERROREdun fakturen zerrenda:

Sortutako fitxategian kontsulta egin denean dauden akastun fakturen informazio guztia jasotzen da, honela bereizita:

- Akatsak zituzten fakturak, haiekin hau egin denean:
 - Baliogabetu
 - Faktura zuzentzaile baten bidez zuzendu

- Akatsak dituzten fakturak, oraindik zergadunak horiekin ekintzarik egin ez duenean.

Puntu horretan, fitxategi honen garrantziari buruzko bi alderdi nabarmendu behar dira:

- Dagokion ekintza egiteko helburuarekin (ZUZENDU Aldaketa fitxategi bat bidaliz edo ordezteko faktura zuzentzaile bat eginez, oinarri eta kuota zuzendua berdin zero dituela).
- **Zergadunaren erantzukizuna da igorritako fakturetan jasanarazitako kuotak behar bezala aitortzea, “.xml” fitxategia atzera bota bada edo akatsak baditu ere.**

Fitxategiak “BEZarako zerrenda”ren egitura bera du, eta fakturaren datu guztiak erakusten dira, datu ekonomikoak barne.

3.3. BEZarako zerrenda:

- **FAKTURA BATEK HAINBAT LERRO SOR DITZAKE:**
 - Faktura bakarrak BEZaren hainbat zerga tasa/baliokidetasun errekgua duten eragiketak jasotzen dituenen, edo hainbat eragiketa mota, lerro bat sortzen da zerga tasa bakoitzeko eta/edo eragiketa mota bakoitzeko. Faktura bakoitzaren informazio komuna (ekitaldia, zergaldia, jatorria, egoera, akatsak, faktura mota, identifikazioa, jaulkitze data, eragiketa data, hartzailearen identifikazioa, BEZaren gakoak) lerro bakoitzean errepikatzen da errazago identifikatzeko.
 - “Fakturaren guztizkoa”, nahiz eta fakturarako datu bakarra den, hainbat lerro dituzten fakturretan azkenengoan bakarrik agertzen da.
 - Ordezteko faktura zuzentzaileetan, oinarri eta kuota zuzenduak lerro gehigarri batean ageri dira.
 - Atzealde zuria/grisa erabiltzen dira, txandaka, faktura baten eta bestearen lerroak bereizteko.

	A	B	C	D	E	F	G	H
1								
2	Ekitaldia	Aldi	Jatorria	Erroreak	Baliogabetua/Zuzendua	Faktura mota	Seriea	Zenbakia
3	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	1
4	2023	1	Alta	EZ		R15	TB-2023-Z	1
5	2023	1	Alta	EZ		R15	TB-2023-Z	1
6	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	2
7	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	2
8	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	3
9	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	3

3.3. BEZarako zerrenda:

▪ EKITALDIA ETA ZERGALDIA:

Likidazio ekitaldia eta zergaldia **ERAGIKETA DATA**ren arabera kalkulatzen da, jarraian zerrendatutako salbuespenetan izan ezik; orduan, TicketBAI fitxategietan emandako informazioaren arabera **Jaulkitze DATA**ri dagokion likidazio ekitaldia eta zergaldia esleituko zaio:

- R1, R2, R3 eta R5 motako faktura zuzentzaileak.
- Faktura oso eta sinplifikatu (F1, F2) negatiboak (<0)


Faktura zuzentzaileentzat eta faktura negatiboentzat esleitutako “Ekitaldia” eta “Zergaldia” zutabeak gutxi gorabeherakoak dira. Zergadunaren ardura izango da likidazio ekitaldi eta zergaldi egokia zehaztea.

Kutxa Irizpidearen araubide bereziari atxikitako zergadunen kasuan, ekitaldiaren eta zergaldiaren eremuek ez dute informaziorik izango, horiek kobrantzaren unearen datuaren mendean baitaude, eta informazio hori ez dago jasota zergadunak bidalitako TicketBAI fitxategietan.

3.3. BEZarako zerrenda:


- ERROREAK DITUZTEN FAKTURAK:

- “ERROREAK” zutabean “**Bai**” agertuko da jasotako fitxategiek akatsak badituzte.
- Fakturen identifikazio datuak bakarrik ageri dira, eta ez ekonomikoak. Itzal gorria dute.



	A	B	C	D	E	F	G	H
1								
2	Ekitaldia	Aldi	Jatorria	Erroreak	Baliogabetua/Zuzendua	Faktura m	Seriea	Zenbakia
3	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	1
4	2023	1	Alta	EZ		R15	TB-2023-Z	1
5	2023	1	Alta	EZ		R15	TB-2023-Z	1
6	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	2
7	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	2
8	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	3
9	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	3
10	2023	1	Alta	BAI		F1	TB-2023-F	4
11	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	5
12	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	5
13	2023	1	Alta	EZ		R11	TB-2023-Z	2

- Faktura horien informazio osoa “Akastun fakturen zerrenda” deskargatzean agertuko da (fakturak kontsultatzeko hirugarren aukera).
- Akastun faktura bat ZUZENDU Aldaketa fitxategi batek aldatzen duenean eta akatsak edukitzeari uzten dionean, JATORRIA eremua eguneratu egingo da, eta ZUZENDU Aldaketa ageriko da. “ERROREAK” zutabean “**Ez**” agertuko da. Itzal gorria kenduko zaio, eta datu ekonomikoak agertuko dira.



	A	B	C	D	E	F	G	H
1								
2	Ekitaldia	Aldi	Jatorria	Erroreak	Baliogabetua/Zuzendua	Faktura m	Seriea	Zenbakia
52	2023	1	Zuzendu M	EZ		R55	TB-2023-Z5	4
53	2023	1	Zuzendu M	EZ		R55	TB-2023-Z5	4
54	2023	1	Zuzendu M	EZ		R55	TB-2023-Z5	4
88	2023	2	Zuzendu M	EZ		F1		111777
89	2023	2	Zuzendu M	EZ		F1		111777

3.3. BEZarako zerrenda:

- BALIOGABETUA/ZUZENDUA:

Faktura bat baliogabetuz gero (BALIOGABETU fitxategi baten bidez) edo zuzenduz gero (faktura zuzentzaile batekin), “**Baliogabetua**” edo “**Zuzendua**” hitza agertuko da E zutabean. Bestela, zutabea hutsik geldituko da.

	A	B	C	D	E	F	G	H
	Ekitaldia	Aldi	Jatorria	Erroreak	Baliogabetua/Zuzendua	Faktura no	Seriea	Zenbakia
55	2023	1	Alta	EZ	Baliogabetua	F1	TB-2023-F	9
56	2023	1	Alta	EZ		R15	TB-2023-Z	8
57	2023	1	Alta	EZ		R15	TB-2023-Z	8
58	2023	2	Alta	BAI	Zuzendua	F1	2023-F	8
59	2023	1	Alta	EZ		R55	TB-2023-ZS	6
60	2023	1	Alta	EZ		R55	TB-2023-ZS	6
61	2023	1	Alta	EZ		R55	TB-2023-ZS	6
62	2023	2	Alta	EZ		R55	TB-2023-ZS	7
63	2023	2	Alta	EZ		R55	TB-2023-ZS	7
64	2023	2	Alta	EZ		R55	TB-2023-ZS	8
65	2023	2	Alta	EZ		R55	TB-2023-ZS	8
66	2023	2	Alta	EZ		R55	TB-2023-ZS	8
67	2023	1	Alta	EZ		F2	TB-2023-S	7
68	2023	1	Alta	EZ		F2	TB-2023-S	7
69	2023	2	Alta	EZ	Zuzendua	F1	TB-2023-F	10
70	2023	2	Alta	EZ	Zuzendua	F1	TB-2023-F	10

3.3. BEZarako zerrenda:

- DATU EKONOMIKOAK:
 - Ez dira agertuko hauen datu ekonomikoak:
 - Faktura sinplifikatuak ordezteko igorritako fakturak (F3).
 - Faktura baliogabetuak.
 - Akastun faktura (itzal gorriz agertzen dira ekitaldiari, zergaldiari, jatorriari, egoerari, akatsei, faktura motari eta fakturaren identifikazioari dagozkion datuak).
 - Fakturen datu ekonomikoak (zerga oinarria/atxiki gabeko zenbatekoa, BEZaren kuotak eta Baliokidetasun Errekarguaren kuotak) hiru bloketan multzokatu dira (kolore urdinezko, gorrizko eta grisezko goiburuekin bereizitakoak), BEZaren aitortzea errazago egiteko.

3.3. BEZarako zerrenda:

1. BEZaren araubide orokorra eta bereziak, Baliokidetasun Errekarguaren Araubide Berezia (BEAB), Araubide Sinplifikatua (ASIN) eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzako Araubide Berezia (NAAAB) izan ezik.

(Goiburu urdineko zutabeak - W-X-Y zutabeak):

- Zerga oinarriak/atxiki gabeko zenbatekoak ageri dira, eta, hala badagokio, BEZaren kuotak eta Baliokidetasun Errekarguaren kuotak, hauei dagozkienak:
 - Zuzentzaileak ez diren faktura igorriak.
 - Negatiboak ez diren fakturak.
 - Baliokidetasun Errekarguaren araubide berezian (BEAB), Araubide Sinplifikatuan (ASIN) eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzako Araubide Berezian (NAAAB) egin ez diren fakturak.

3.3. BEZarako zerrenda:

2. Oinarri eta kuoten aldaketak.

(Goiburu gorria duten zutabeak– Z-AA-AB zutabeak):

- Honako hauek adierazten dira:
 - Faktura zuzentzaileetako zerga oinarriak/atxiki gabeko zenbatekoak, BEZaren kuotak eta baliokidetasun errekaruaren kuotak (ezberdintasunagatikoenak eta ordeztekoenak).
 - Ordezteko faktura zuzentzaileen oinarri eta kuota zuzenduak. Zeroz besteko oinarri eta kuota zuzenduak direnez, kalkulua errazteko, emandako zeinuaren kontrakoa dute.
 - Zerga oinarriak/zenbateko atxiki gabeak ageri eta, hala badagokio, BEZaren kuotak eta Baliokidetasun Errekarguaren kuotak, faktura negatiboek dagozkienak.
 - Horietako batek ere ezin du eduki Baliokidetasun Errekarguaren araubide berezian (BEAB) edo Araubide sinplifikatuan (ASIN) egindako eragiketaren markarik.

		Zerga oinarria / Base imponible		Kuota / Cuota	
Sortutako BEZa / IVA devengado	<p>Erregimen orokorra / Régimen general</p> <p>Balokidetzaren erregimena / Recargo equivalencia</p> <p>Oinarrien eta karguen aldatzea / Modificaciones de bases y cuotas</p> <p>Oinarrien eta karguen aldatzea / Modificaciones de bases y cuotas</p>	02	21 %	03	
		04	10 %	05	
		55	5 %	56	
		06	4 %	07	
		57	0 %		
		39		40	
		08	5,2 %	09	
		58	1,75 %	59	
		10	1,4 %	11	
		12	0,5%-0,62%	13	
		41		42	
		14		15	
		43		44	
		SORTUTAKO KUOTA, GUZTIRA / TOTAL CUOTA DEVENGADA		03+05+56+07+40+09+59+11+13+42+15+44	
Batasun barruko ondasun eta zerbitzu emateak / Entregas intracomunitarias de bienes y de servicios		30			
Esportazioak eta asimilatutako eragiketak / Exportaciones y operaciones asimiladas		31			
Kokapen arauet jarraituz lotu gabe dauden eragiketak (salbu 53 laukian jarritakoak) / Operaciones no sujetas por reglas de localización (excepto las incluidas en la casilla 53)		51			
Eragiketa lotuak, subjektu pasiboaren inbertsioa duenak / Operaciones sujetas con inversión del sujeto pasivo		52			
OSS. Kokapen arauet jarraituz lotu gabe dauden eragiketak, OSSari atxikita daudenak / OSS. Operaciones no sujetas por reglas de localización acogidas a la OSS		53			
OSS. Eragiketa lotuak, OSSari atxikita daudenak / OSS. Operaciones sujetas y acogidas a la OSS		54			

Fakturak zuzentzeko hiru bide daudela kontuan izan behar da:

- Diferentziengatik faktura zuzentzailea jaulki, “I”.
- Ordezkapen bidezko faktura zuzentzailea jaulki, “S”:
 - Pauso bakarrean, “oinarri zuzendua”, “kuota zuzendua” eta, hala badagokio, “errekargu zuzendua” eremuak informatuz.
 - Bi pausotan.

3.3. BEZarako zerrenda:

3. Baliokidetasun Errekarguaren Araubide Bereziko (BEAB), Araubide Sinplifikatuko (ASIN) edo Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza Araubide Berezian (NAAAB) egindako eragiketak .

(Goiburu grisa duten zutabeak– AC, AD, AE y AF zutabeak):

- Baliokidetasun Errekarguko araubide berezian, Araubide sinplifikatuan edo Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza Araubide Berezian igorritako fakturen oinarriak eta kuotak adieraziko dira, edozein faktura motatakoak direla ere.

Zeroz besteko oinarri eta kuota zuzendua dituen ordezteko faktura zuzentzaile batek bi xehakapen mota dituenean, adibidez, bata BEABen edo ASINen eta beste bat ez dena ez BEABen ez ASINen, adibidez, araubide orokorreko bat, erabaki da informazio hori BEABeko, ASINeko edo NAAB Eragiketen blokean jasoko dela, **baina zergadunak berak izango du eragiketa zuzen aitortzeko ardura.**

4. Garapenean dauden hobekuntzak

Laster, hobekuntza hauek egingo dira **BEZ**arako zerrendan:

- **Faktura zuzentzaileetan** zuzendutako fakturen seriea eta zenbakia adieraziko dira (bat baino gehiago badira, marra “|” bidez bereizita etorriko dira - SERIE NUMERO FECHA|SERIE2 NUMERO2 FECHA2).
- **Faktura sinplifikatuak trukatzeko edo ordezteko fakturetan**, ordeztutako fakturen seriea eta zenbakia adieraziko dira.


Total factura	Tipo de	Tipo de	Rectificada/Sustituida
2420,00	21,00 %	0,00 %		
12,10	21,00 %	0,00 %		TB-2023-S 2 19/01/2023

- TicketBAIn erregistratutako fakturak bilatu ahal izango dira, jaulkipen dataren edo eragiketa dataren arabera ez ezik, **ekitaldiaren eta likidazioaldiaren** arabera ere.

4. Garapenean dauden hobekuntzak

Laster, hobekuntza hau ere egingo da: **Deskargatu BEZarako zerrenda.**

- CSV fitxategi deskarga bat implementatuko da, BEZarako zerrendaren eduki berberarekin, 1.000 fakturen mugarik gabe.




The screenshot shows the TicketBAI interface with the following elements:

- Navigation menu: Fakturak, BEZ zerrenda, Inportazioa
- Section: BEZarako Zerrendaren aurreko eskaerak
- Table with columns: Ekitaldia, Aldi mota, Aldia, Eskaera-data, Egoera, Fitxategia, Ekintzak
- Table row: 2023, Hilerokoa, 1, 2023-02-21, Prozesatua, 44129314L_2023_M_1_1676962299981, [Download icon]
- Section: BEZarako Zerrenda deskargatzea
- Form fields: IFZ (44129314L), Ekitaldia (2023), Aldi mota (Hilerokoa selected), Aldia (Urtarrila)
- Buttons: Ezeztatu, Eskatu

4. Garapenean dauden hobekuntzak

TicketBAI Atarian hobekuntzak:

- Laguntza loturen beheko blokea.
- Ikonoa gailuen erregistroan, egiteke dauden gailuen kopurua adierazita.
- Jakinarazi-n komunikazioak egiteke badituzu, ikono gorri bat agertuko zaizu.



SEDE ELECTRÓNICA

TICKETBAI ATARIA

2023/02/23 13:39:39

eu | es

GARCIA ARAMBURU LUIS - 11221122C

TicketBAI fakturen kontsulta

SARTU

FakturoBAI

SARTU

Gailuen erregistroa

SARTU

TicketBAI fitxategien inportazioa

SARTU

Jakinarazpen eta komunikazioak

SARTU

TicketBAI idazkiak

SARTU

• Aviso de incidencia técnica
• Rechazo o falta dispositivos
• Escrito general

ZERBITZUARI BURUZKO INFORMAZIOA

TicketBAI

943 113 000

Telefona

Posta

Matxura

TxatBot

Hitzordu berria



ESKERRIK ASKO
